

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA PRACTICUM Ieko PROGRAMA

**HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA**



2019-2020 IKASTURTEA

Gizarte Hezkuntzako Practicum Ieko tutoreak:

Marian De la Caba, Rakel del Frago, Arkaitz

Lareki, Elisabet Sáenz, Esther Uria

Koordinatzailea: Jon Mikel Luzarraga eta Joana
Miguelena

GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUM Ieko PROGRAMA

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA

UPV/EHU

1. Sarrera	3
2. Metodologia	3
2.1. I. Fasea	3
2.2. II. Fasea	6
3. Aurkeztu Beharreko Lanak.....	7
4. Practicum Ieko Ebaluazioa	9
4.1. Fakultateko Tutorearen Ebaluazioa.....	10
4.2. Praktiketako Zentroko Instruktoarearen Ebaluazioa	10
5. Bibliografia.....	11

AURRETIKO GOGOETAK

- Practicumako fase guztietara ikaslegoak joan behar du. Salbuespenak tutoreekin hitz egin.

1. SARRERA

Practicuma funtsezko gaia da ikasketa planean. Haren bidez jarduera profesionalera hurbilduko da ikaslea, gizarte eta hezkuntza errealitatea ikusiz, behatuz, aztertuz eta etorkizun hurbilean bere lanbidea izango denaren inguruan gogoeta eginez.

Gizarte Hezkuntzako Graduko hirugarren ikasturteko lehen lauhilekoan egingo da Practicum hau eta 12 ECTS kreditu ditu.

2. METODOLOGIA

Practicum lean jarraituko den metodologia ondorengo bi fasetan banatzen da:

2.1. I. FASEA: Aurkezpena, lanaren zentzua eta antolaketa.

COVID 19ak eszenatoki ezezagun bat aurkezten digu 2020/2021 ikasturtean. Nahi eta ezjakintasuna nabaria izan ikasturte hasiera honetan, hainbat kontu ezagutzen ditugu. Iraileko formazioak talde txikietan egingo dira segurtasun neurriak bermatze aldera. Hori horrela, ikasturte honetan, hasierako formazioa tutore bakoitzak egingo du tutorizatzen dituen ikasleekin. Formazio hau fakultateko ikasgela batean egingo da (zehazteke). Presentzialtasuna bermatu ezin bada, formazioa *Blackboard Collaborate* bidez egingo da.

Formakuntza saioak irailean egingo dira, ikastetxeetan praktikak hasi aurreko asteetan. Hauen helburua da aurreko moduluetan zehar garatutako gaitasunak Practicum I.ekin loturiko gaitasunekin lotzea, horren inguruan gogoetak eginez, tresnak garatuz, eta zentroaren eta eskarmentudun ikasleen aurkezpenen bidez. Prozesu horri aurrera eramateko, honako jarduerak garatuko dira:

- Practicumaren testuingurua eta aurkezpena
- Tresna metodologikoak
- Kode deontologikoa
- Rol profesionala
- Ikasleen eta praktika-zentroen testigantzak
- Idazkera akademikoa
- Euskal Autonomi Erkidegoaren gizarte zerbitzuen eskutitza

Hurrengo koadroetan saio bakoitzaren helburuak eta jarraituko den metodologia jasoko da.

1. Practicumaren testuingurua eta aurkezpena	
Helburua	<ul style="list-style-type: none">● Ikasleak testuinguruan kokatzea, ikaskuntzaren gaitasunei eta emaitzei dagokienez.● Practicum I delakoaren egitura, faseak eta dokumentazioa ikasleei aurkeztea.

	<ul style="list-style-type: none"> ● Gizarte Hezkuntzako praktiken zerbitzuak (zentruak) testuinguruan kokatzea, gaitasunen mapa batetik abiatuta.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> ● Fakultatearen web-orritik, Practicumaren programa deskargatuko dira: gaitasunak - Ikaskuntzaren emaitzak eta Practicum II eta III faseak. ● Fakultatearen webgunetik, banan-banan berrikusiko dira entregatu beharreko eranskinak eta dokumentazioa. ● Talde bakoitzak bere eremuari dagokion mapa egingo du, honako hauek zehaztuta: <ul style="list-style-type: none"> ○ Erakundea ○ Zerbitzua ○ Administrazioa: Udala/Aldundia/Eusko Jaurlaritza ○ Legedia

2. Tresna metodologikoak	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> ● Behaketa eta bilketa gidatuko duten teknikak eta tresnak ezagutzea. ● Practicumerako behaketa-fitxa bat egitea. ● Bizipenak, deskribapenak, harremanak eta abar biltzeko dugun modua aztertzea. ● Hausnarketara bideratutako gure jardunbideen bilketa errazteko jarraibideak adierazi. ● Egunerokoen teknika ezagutzea. ● Gertakari kritikoak idaztea.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> ● Talde txikietan, bi une bereiziz: <ul style="list-style-type: none"> ○ Teknikei, tresnei eta abarri buruz hausnartzera bideratua, testu-irakurketa, behaketaren definizioa, zer behatu, kode deontologikoa eta abar oinarri hartuta. ○ Tresna eraikitza bideratuta: zer behatu behar dugu? ● Proposatutako gai bati buruzko banakako idazkia egitea. ● Oinarrizko elementuen azterketa eta talde-eraikuntza. ● Egunerokoen laburpenen analisisa (deskriptiboak eta gogoetazkoak).

3. Kode deontologikoa	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> ● Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologikoa ezagutzea. ● Praktika profesionalean gerta daitezkeen gorabehera

	<p>kritikoak aztertzea eta horiei buruz hausnartzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Gizarte Hezitzailearen Kode etikoarekin lotutako gure jarduna aztertzea eta horri buruz hausnartzea.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> ● Gizarte-hezitzailearen Kode deontologikoaren analisia. ● Hainbat jardunbide eta esku-hartze modu aztertzea, gizarte-hezitzailearen kode deontologikoa errespetatuz.

4. Rol profesionala	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> ● Gizarte-hezitzailearen rol profesionala ezagutzea. ● Rol profesional horri esleitzen zaizkion funtzioak ezagutzea. ● Lanbidearen barruko eta barruko harremanen esparrua, lanbidean jarduteko gizarte- eta lan-baldintzak, autopertzepzio profesionala eta abar ezagutzea.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> ● Hainbat praktika eta esku-hartze aztertzea.

5. Ikasleen eta praktika-zentroyen testigantzak	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> ● Praktika-zentroyen funtzionamendua ezagutzea.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> ● Hainbat zentrotako arduradunek beren lantokietan nola funtzionatzen duten azalduko dute. ● Ikasle ohiek praktika-zentroetan izandako esperientziak kontatuko dituzte.

6. Idazkera akademikoa	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> ● Lan akademiko bat nola aurkezten den jakitea.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> ● Testu akademikoak aztertuko dira. ● Adibideak berrikusiko dira. ● Lan akademiko baten egiturarekin eta edukiekin erlazioatutako ariketak egingo dira.

7. Euskal Autonomi Erkidegoaren Gizarte Zerbitzuen Eskutitza

Helburua	<ul style="list-style-type: none"> ● Euskal Autonomi Erkidegoaren Gizarte Zerbitzuen Eskutitza ezagutzea.
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> ● Euskal Autonomi Erkidegoaren Gizarte Zerbitzuen Eskutitzaren aurkezpena Gipuzkoako Elkargo ofizialak egingo du.

2.2. II. FASEA: Praktika-zentruetan eta formazio mintegiak (10 kreditu ECTS = 175 ordu aurrez aurrekoak, eta 75 bestelakoak).

Ikasleei esleitu zaizkien zentro eta zerbitzuetan egingo da **2020ko irailaren 28tik abenduaren 18ra**. Banaka eta denon artean gogoeta egingo dugu praktika aztertzeko (beste profesional batzuen laguntzarekin), parte-hartzaile “behatzaile” papera izanik praktiketako zentroan eta talde bateko kide izanik Fakultatean.

Ondorengo jardueren bidez garatzen da:

- Praktikak zentroan, baliabidean edo zerbitzuan (Practicumeko ordutegiaren akordioa)
- Fakultateko jarraipenerako jarraipen-mintegiak (tutore bakoitzarekin adostu beharrekoa). Gutxienez 3 mintegi.
- Practicum posterra egitea eta aurkeztea (abenduaren erdialderako aurkezpena, zehazteke).
- Practicum txostena (2021eko urtarrilaren 15ean entregatua). I. fasetik abiatuta, eta bertan eraikitako/garatutako ikaskuntzak eta tresnak erabiliz (behaketa eta egunerokoa), ikasle bakoitza fakultatek bidali zaion zentro/zerbitzuan kokatuko da.

Practicum leko hasierakoan eta amaieran bete beharreko anexoak

Fakultateko tutoreek emandako jarraibideak jarraituz ikasleak behin praktiketako zentroan aurkeztu, kokatu eta praktikak burutu ondoren, dagozkion eranskinak bete beharko dira (fakultateko web orrian eskuragarri daude).

- Practicuma hasterakoan:
 - **Konpromiso Orria**
 - **XI. Eranskina:** Praktika egingo duten ikasleek izenpetu beharreko dokumentua
 - **I. Eranskina:** Prestakuntza Proiektua
- Practicum bukatzerakoan:
 - **IV. Eranskina:** Instruktoarearen Amaierako Txostena
 - **V. Eranskina:** Ikaslearen Amaierako Txostena
 - **VI. Eranskina:** Ikaslearen tutorearen amaierako balorazio txostena eta egiaztagiri.

3. AURKEZTU BEHARREKO LANAK

Practicumeko prozesuan zehar Ikasleak hiru emangarri burutuko ditu, kontuan hartuz azpian aurkezten diren argibideak:

- 1. EMANGARRIA: Formakuntza
- 2. EMANGARRIA: Practicum zentruaren posterra
- 3. EMANGARRIA: Practicum memoria

Hurrengo koadroetan emangarri bakoitzaren deskribapena jasotzen da, halaber, hauek izan beharreko eduki, metodologia eta entrega-data.

1. EMANGARRIA: FORMAZIOA	
Deskribapena	Tutoreari I fasean landutako zeregin guztien erreflexioa jasotzen duen dokumentua entregatuko zaio.
Metodologia	Formazioen hausnarketa: <ul style="list-style-type: none">● Practicumaren aurkezpen eta testuinguraketa● Tresna metodologikoak● Kode deontologikoa● Rol profesionala● Ikaslego eta praktiketako zentroen testigantzak● Idazketa akademikoa● Euskal Autonomi Erkidegoaren Gizarte Zerbitzuen Eskutitza
Entrega- data	Entregatzeko data irakasle bakoitzak zehaztuko du.

2. EMANGARRIA: PRAKTIKA ZENTROARI BURUZKO POSTERRA	
Descripción	Ikasle bakoitzak praktika-zentroaren testuinguruari buruzko aurkezpen eskematiko eta bisual bat egingo du, poster formatuan. Posterrak Practicum lean egin lana beste ikasleei aurkeztuko dizkiete (Practicum I-eko ikaskideei eta Gizarte Hezkuntzako bigarren mailako ikasleei), praktiketako esperientzietatik elikatu ahal izateko eta, ikasturte amaieran izena eman behar duten praktika-esparruak eta zentroak aukeratzeko laguntzeko.
Objetivos	<ul style="list-style-type: none">● Praktiketako proiektua, programa edo zerbitzuari buruz poster bat egitea● Practicum I, II eta IIIko ikasleei praktiketako zerbitzu, programa edo proiektuak erakutsi, III. Moduluko ikasleek Practicum II eta III aukeratzeko● Practicum Ieko ikasleek eskarmentuak konpartitzeko

Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> ● Posterraren erakusketa iraunkorra ● Work-kafe: Practicum leko ikasleen artean eskarmentuak konpartitzeko
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> ● Testuingurua: Marko legala, administratiboa, erakundea eta komunitatea ● Zerbitzu, programa edo proiektuaren analisia: <ol style="list-style-type: none"> 1. Zer? Zerbitzu, programa edo proiektuaren izenburua 2. Zergatik? Fundamentazioa eta justifikazioa 3. Zertarako? Helburuak 4. Norentzat? Parte hartzaileak 5. Non? Gunea 6. Nola? Metodologia eta jarduerak 7. Nortzuk? Giza baliabideak. Koordinazioa 8. Zerekin? Espazioak eta baliabide materialak 9. Noiz? Denboralizazioa eta jarduerak ● Diseinua: A3, maketazioa ikasle eta irakasle artean definituko da
Entrega data	Entregaren data tutore bakoitzak jakinaraziko du.

3. EMANGARRIA: PRACTICUM MEMORIA

Memoriaren prestaketa fakultatean egingo diren jarraipen bileretan gainbegiratuko da (talde txikietan eta tutorearen gidaritzapean).

Memoriaren egitura:

1. Datu pertsonalak eta memoriaren aurkezpena (Sarrera)

2. Análisis del servicio o programa:

2.1. Testuingurua eta eremu soziokulturala

2.2. Administrazioa, legeria

2.3. Garatzen duen erakundea (eskaintzen dituen zerbitzuak, programak, esku-hartze motak, etab.)

2.4. Zerbitzuaren aurkezpena, programa:

2.4.1. Zer? Zerbitzuaren edo programaren izenburua

2.4.2. Zergatik? Oinarriak, zer premiari erantzuten dion

2.4.3. Zertarako? Helburuak

2.4.4. Norentzat? Hartzaileak

2.4.5. Nola? Esku hartze metodologikoa

2.4.6. Nortzuk? Esku hartze taldea (giza baliabideak). Gizarte-hezitzailearen lanbide-profila eta betetzen dituen eginkizunak eta gaitasunak

2.4.7. Norekin? Beste batzuekin koordinatzea

2.4.8. Zerekin? Baliabide materialak

2.4.9. Noiz? Denboralizazioa

3. Proceso de prácticas (Descripción del plan individual)

Praktiken hasieran aurkeztutako prestakuntza-proiektuaren arabera (1. eranskina), adierazi zer dedikazio, zeregin eta funtzio bete diren, zer gaitasun eskuratu diren, eta zer metodologia erabili den informazioa, gertakaria kritikoak eta abar biltzeko. Halaber, hasierako prestakuntza-proiektuari dagokionez egindako aldaketak jasoko dira.

4. Egindako lanaren azterketa eta hausnarketa (Hausnarketa alderdi hauei buruz)

4.1. Zerbitzu edo programako partaideekin hezkuntza-harremana.

4.2. Komunitatearekin harremana

4.3. Profil profesionala

4.4. Hezitzaile lan taldea

4.5. Kode etikoa

4.6. Nire parte hartzea: Prestakuntza ibilbidearen azterketa; Ikaskuntza adierazleak; gabeziak-indarguneak eta proposamenak; profesional moduan autopertzepzioa

4.7. Practicuma prozesuaren inguruko inplikazio mailaren hausnarketa

4.8. Ikasle proiektu profesionalari ekarpenak

4.9. Practicumaren alde positiboak eta hobetu beharrekoak

5. Praktiken balorazioa eta bizipen pertsonala

Practicum prozesuaren balorapena, ondorioa eta itxiera. Honetarako, gomendagarria da gogoeta egunkaria erabiltzea, txostenean eranskin gisa jasoko dena.

* Azken lanaren puntuak eta ordena orientagarriak dira. Lana puntu horiei buruzko informazioa jaso behar du, eta ez da ezinbestekoa egitura horri jarraitzea.

Memoria entregatzeko data: 2021eko urtarrilaren 15a.

4. PRACTICUMENKO EBALUAZIOA

Ebaluazioa egiteko, kontuan hartuko da ikasleek egindako lana eta prozesua, bai fakultatean bai praktika-zentroan egin beharreko jardueretan.

Garrantzitsua da adieraztea, practicumaren ebaluazio positiboa izateko, ezinbestekoa dela fakultatean garatutako prozesua (tutoreak ebaluatutako 5 puntu) eta praktika-zentroan garatutakoa (instruktoarak ebaluatutako 5 puntu) gainditzea.

4.1. Fakultateko tutorearen ebaluazioa: 5 puntu

Jarraian ebaluagarri diren dokumentuak zehazten dira, bakoitzak duen puntuazioa, baita jarraitu dituen ebaluazio irizpideak ere.

	Ebaluazio irizpideak	Gehi. nota
1. Emangarria: Formakuntza	<ul style="list-style-type: none">● Ataza guztiak formatu egokian jasotzen dituen dokumentua entregatzea.● Dokumentua argi idatzita dago eta unibertsitatearen eskakizun-mailara egokitzen da.	0,5
2. Emangarria: Posterra	<ul style="list-style-type: none">● Edukia egokia = 1,5● Maketazioa egokia = 0,5	2
3. Emangarria: Praktiketako memoria + jarraipen mintegiak	<ul style="list-style-type: none">● Jarrera eta parte-hartzea mintegietan.● Memoriaren irizpideetara eta egiturara egokitzea: argitasuna eta koherentzia datuak aurkeztea. Dokumentua unibertsitatearen eskakizun-mailara egokitzea.● Zehaztasuna, zorrotasuna eta argitasuna dokumentazioa azaltzea eta argudiatzea. Lanbidearen berezko hiztegia zuzen erabiltzea.● Egindako praktiken azterketan eta hausnarketan sakontasuna● Profil profesionalaren azterketa eta hausnarketa karreran zehar landutako ikasketa-zientzia prestakuntzaren esparruan.	2,5

4.2. Praktiketako zentroko instruktorearen ebaluazioa: 5 puntu

Practicukak amaitu ondoren, praktiketako zentroko instruktoreak ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du (IV. Anexoa: Instruktorearen Amaierako Txostena).

Jarraian, kontuan hartuko diren ebaluazio-elementuak zehazten dira:

- Aldez aurretik hitzartutako egutegiak eta ordutegiak bete dituen.
- Bere zereginak bete dituen, halakotzat hartuko dira dedikazioa, erakutsitako gaitasuna, interesa eta jarrera arduratsu eta burutsua.
- Talde profesionalen esparruan izandako elkarlana, ekimenerako gaitasuna.
- Ebaluazio orria betetzea.

5. BIBLIOGRAFIA

- AGUILAR, M.J. y ANDER-EGG, E. (1992). *Evaluación de servicios y programas sociales*. Madrid: Siglo XXI.
- ASEDES y CGCEES (2007): Documentos profesionalizadores: Definición de la Educación Social. Código deontológico del educador y la educadora social. Catálogo de funciones y competencias de la educadora y el educador social. <http://www.eduso.net/archivo/docdow.php?id=143>
- GARCÍA HERRERO, G (1996). *Diseño y evaluación de proyectos sociales*. Zaragoza: Certeza.
- COMISIÓN DE PRÁCTICAS (2012). *Guía del Practicum de Educación Social*. HEFA. UPV/EHU
http://www.filosofiahezkuntzazientziak.ehu.es/p246content/es/contenidos/calendario/calendario_practicum/es_cal/gidas.html
- PÉREZ CAMPANERO, M.P. (1991). *Cómo detectar las necesidades de intervención socioeducativa*. Madrid: Narcea.
- MARTÍN GONZÁLEZ, M.T. et al (2006). *El Practicum en las titulaciones de Educación: Reflexiones y experiencias*. Madrid. Dykinson S.L.
- **Anexos a cumplimentar por el alumnado** a través de la web de la facultad:
<http://www.ehu.eus/es/web/filosofia-hezkuntza-zientziak/anexos>
 - ☐ Anexo XI
 - ☐ Hoja de compromiso, antes de incorporarse a los centros
 - ☐ Proyecto Formativo.
 - ☐ Autoevaluación final.